

**ZUMAIA LANTZEN E.A-REN
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

46ZK-KO AKTA

ZUMAIA LANTZEN E.A-ren Administrazio Kontseilua ZUMAIAn biltzen da, mila bederatzehun eta laurogeita hemezortziko maiatzaren 25ean.

BERTARATUAK:

Lehendakaria: Rikardo PEÑA KINTELA
Batzarkideak: Felipe GUTIERREZ SERVAN
Migel Anjel APERRIBAI ZARAUTZ
Idazkaria: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

Luziano Paguegi, udal arkitektoa eta Jose Ramon Estomba, ESARBE E.A-ko ordezkaria ere, bilerara etorri dira.

EGUNEKO AZTERGAIK

**1.- AURREKO KONTSEILUKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONESPENA
(98/04/27ko 45zk-ko akta).**

Aldez aurretik deialdiarekin batera bidalitako akta gainbegiratu eta ontzat eman zen.

**2.- 10. HGA-ko ETXEBIZITZA PROIEKTUAREN AZTERKETARI BURUZKO
INFORMAZIOA.**

Informazio hau emateko, Pablo Borde Ondarra arkitektoa etorri da bilerara eta arearen ordenamendu zehatza izan daitekenaren planoak, etxebizitzaren aurreproiektua eta aurrekontuaren aurrerapen bat aurkeztu zituen.

Arearen ordenamenduak, orain dauden etxebizitzetarako bideen distantzien arazoentzat hasierako irtenbidea proposatzen du, sarbiderako hobekuntzak eskaileren bidez, atzeko espaloien eta lur-ezpondeen arteko erlazioa e.a. Eta luraren baldintza topografikoak kontuan hartuz, nahiko onargarria izan liteke etxebizitzaren lehenengo solairuetarako (berriak eta iadanik eginak daudenak) eta ia eraginik ez du izango beste solairuetan.

Aztertzen ari den 12 etxebizitzaren aurreproiektuak, beheko solairuan 83m² erabilgarri, garaje eta banakako trastetokia duten etxebizitzaren egitasmo bat garatzen du eta bilerakideek oso positiboki baloratzen dute.

Hirigintza eta eraikuntza kostuen aurrerapenak, 105 milioiren balioa ematen dio etxebizitzaren exekuzio materialari eta 39 milioikoa hirigintzakoari eta G. O-en %13a eta O. H-en %6a gehituz, 171 milioi pezeta izango lirake, hau da, 14,25 milioi pezeta, garaje eta trastetokia duten etxebizitza bakoitza.

Azpitarratu behar da, kostu honek ez duela lurzorua barneratzen.

Nolanahi ere, ateratzen den prezioa oso garestia denez, eragiketaren bideragarritasuna zalantzan jarri zen, azterketan eta ahal izanez gero promozio prezioaren jaitsieran sakontzea, erabakiz.

3.- OBREN ADJUDIKAZIOA.

3.1.- A-1 eta A-2 lurzatiaren eta A-3aren zati baten hirigintza (32.HGako hirigintza proiektuaren gehigarria. Gorostiaga).

BEZa erantsi gabe 142.008.642 pezetako aurrekontua duten obra hauen lehiaketara 9 enpresa gonbidatu dira.

Altuna eta Uria E.A., ERGA Eraikuntzak E.M. eta Murias Eraikuntzak E.A. enpresek ez dute eskaintzarik aurkeztu.

Kartazalak irekitzen dira eta aurkeztutako seirak bakoitzari dagokion eskaintzarekin, ondorenean aipatzen dira:

GALDIANO E.A. Eraikuntzak	169.826.140 pezetako eskaintzarekin.
SUQUIA E.A. Eraikuntzak	141.746.726 pezetako eskaintzarekin.
UBIRI E.M. Eraikuntzak	134.695.197 pezetako eskaintzarekin.
MARIEZCURRENA E.M. Eraik.	141.905.691 pezetako eskaintzarekin.
MOYUA E.A. Eraikuntzak	164.380.000 pezetako eskaintzarekin.
ADOLFO SOBRINO E.A. Eraik.	172.544.515 pezetako eskaintzarekin.

Kontseiluak erabaki du, obra UBIRI Eraikuntzak E.M.ari adjudikatzea, eskaintza onuragarriena delako, goian aipaturiko 134.695.197 pezetako kopuruan (Segurtasun eta Higienearen aurrekontua proiektuko prezioan gehituz, lehiaketako oinarrien arabera), honek %5,15eko beherapena dakarrelarik proiektuaren aurrekontuarekiko (142.008.642 pezeta BEZ gabe, bi kasutan).

3.2.- Instalazio elektrikoa 3. SEKTOREko lehenengo fasean.

Lehendakariak eta gerenteak, ZUMAIAKO ETXEAK E.A-ko ordezkariekin (A-1 eta A-4 eraikinaren eragileak) egindako bilerak aipatzen dituzte eta bide batez, hauek azaldutako kezka, datorren uztailaren amaieran instalazio hori egin gabe egon daitekeelako eta data horretan etxebizitzak entregatu egin behar dituztelako.

Aldi berean adierazten dute, aurrera jarraitzen dutela kudeaketaren “negozioazioak” Iberdrolarekin, 3. Sektoroko instalazio elektrikoa egin eta

finantzatzeko, Industrian aurkeztutako INGEQUR E.A-ren (Manuel Jiménez Brea) proiektuaren arabera.

Gai honetan aurrera egiteko, homologatutako instalatzaileei aurrekontuak eskatu zaizkie eta hauen eskaintzak kartazal itxietan aurkezten dira, ondorenean irekitzeko. Eskaintzak ondorengoak dira:

LANDA eta IMAZ, E.A.	5.420.700 pezetako eskaintzarekin.
ETEN E. A.	6.204.550 pezetako eskaintzarekin.
MONTAJES ELEC. ALBIPIN	8.377.155 pezetako eskaintzarekin.
TECUNI, E.A.	9.158.772 pezetako eskaintzarekin.

Eskaintzak ez daude “kopuru itxiaz” eginak. Homogeneizatzea beharrezkoa da, interesgarriena zein den jakin ahal izateko.

Azaldutakoagatik eta gaiaren presa, Iberdrolarekin negoziazioak eta egin daitekeen hitzarmena eta abarregatik, Kontseiluak erabaki du Gerentziari ahalmena ematea, gaia erabakitzeko eta beharrezkoak diren agiriak eratzeko.

4.- LURZATI ETA LOKAL INDUSTRIALEN SALMENTA.

4.1.- Lehendakaritzak eta Gerentziak adierazten dute, Kontseiluak ezarritako baldintza orokorretan, salmentako kontratuak sinatu dituztela, SPRILUR E.A-ri 8.000m² eraikigarri eta 21. HGaren B lurzatian, Pabiloiaren 8 eta 9 zenbakitako lokalak, hurrenez hurren, Barinagari eta Bernardo Tenari saltzeko.

4.2.- Gerentziak azaltzen du, Estaños Matiena E.A-k, interesa duela Gorostiagako **A. 3. 2.** lurzatian, **A.3.1**ekin mugatuz eta 25 metroko zabalera 3.000 m² erosteko.

Estaños Matiena E.A. enpresa familiar bat da, 8 lanposturekin eta zenbait material berreskuratzera dedikatzen dira, baina elektrolitiko bidez bereiztuz.

Lurzatia erosi nahi dute eta Gorostiagan eraiki, 1999ko abuztuan Abadianon dauzkaten instalazioak lekualdatu ahal izateko.

Beren iharduerarekin ez dutela ondorio kutsakorrik sortzen, ziurtatzen dute.

Kontseiluak, kutsaduraren gai honetaz kezka daukanez, ikertzea erabaki du eta gainera, lurzatiaren salmenta onartu baino lehen, Abadianon gaur egun dituzten instalazioak bisitatzea.

4.3.- Aurrera jarraitzen dute salmentarako negoziazioak KORTA E.A-ekin, jarreraren ia erabateko hurbilketa eman delarik, salmenta berehala gauzatuko dela pentsatuz.

5.- BESTE ZENBAIT.

5.1.- Aurreko Kontseiluan eskatutakoari erantzunaz, jakinarazten da, Oliveri 21. HGAn egunean dagoela bere hirigintzako betebeharrak edo ekarpen ekonomikoetan. Era berean adierazten da, Zumaia Lantzen E.A-k ere konpondu dituela, 21. HGako A lurzatian egiten ari diren eraikuntza berriaren ondoriozko aireztapen eta argiztapen arazoak.

5.2.- Kontseiluak oniritzia ematen dio COYSER E.M-k egindako eskaintzari, 3. Sektoreko A-4 eraikinaren inguruan 11.000 m³ ko? betelaren hornidurarako, zabaldu eta trinkotua m³ bakoitza 350 pezetetan.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera amaitutzat ematen da, eta nik, idazkari honek, sinatu egiten dut alkate jaunak ontzat eman ondoren.

O.E.
LEHENDAKARIA

IDAZKARIA